

Juanito GARATE «MALTZETA» | Soinu-jotzailea

# «Lehen gure aurpegiak hautsarekin estaltzeraino egiten zuten dantzaz»

**G**erra ondoko trikitilari belaunaldi mitikotik bizirik dirauen azkenetako bat da. Aunxa baino zerbait gazteago, Zabaleta baino urte bakan batzuk zaharrago, Zialtze-ta, Tapia Zaharra eta Sakabirekin bazter askotan ibilia, 77 urte beteko ditu ekainean, hirugarren diskoa argitaratu behar diote aurki Elkarlaneanen eta bihar bere bosgarren omenaldia egingo diote Azpeitian. Hondarribiko bere etxean hartu gaitu. Pasiloko hormetan, biografia luze horretako mugarrak gisa, argazkiak ikus daitezke. Sasoko edo zaharxeago, eskusoinuari helduta agertzen da guztietan eta azkenaldian alaba du ondoan beti panderoarekin.

**Zure etxeok dultzaina-jotzaileak izanik, nola hasi zinen soinu txikiarekin?**

Gure etxean, Azkoitiko Urtegi-ko Maltzeta-Etxetxon, musika tresnaz betetako kutxa bat zegoen. Txikitik handik flauta bat, prantxuleta (txistu mota bat), biolina, dultzainak, danborra eta trikitixa ateratzen genituen, gehienek jotzeko balio ez bazuten ere. Aita zenak, Agustinek, eta bi osabak jotzen zuten dultzaina eta aitona Joxe Marik ere oso ondo jotzen zuela esaten zuten. Aita trikitandik ikusi dut nik etxeko sukaldean, igande arratsaldetan bereziki, dultzaina jotzen. Lehen diskoan, "Maltzeta aita-alabak" deituan, sartu nuen biribilketa bat berari entzunda ikasia zen. Baina bai gure auzoan, bai Martirieta dultzaina-jotzaileak baino ugariagoak ziren soinu-jotzaileak: Egurrolatarrak, Epeldetarrak, Zendoia eta Izer Martirieta auzoan eta Zabaleta eta Muno, Arritte-Etxetxo gurean. Nik, dena den, Gelaxori begira erabaki nuen soinu-jotzaile izatea. Mendi-erromeria asko egiten zen garai hartan gure inguruan, Pol-Polen, Zaraguetan (Azkarate), Gorlan eta Elosuan, esate baterako, eta nik 16 bat urte nituela Gelatxok sortu zidan soinua jotzen ikasteko gogoia. Madariaga Txikiarekin ikasi nuen apur bat. Azkoititik gure etxera etortzen zen igandetan erakustera. Gure etxetik oso bertan dago Zabaleta baserria ere. Eugenio Alberdi Zabaleta ni baino lau urte gazteagoa da, baina elkarrekin egin genituen hasiera-ko ikasketak. Nik ikasitakoak erakusten nizkion eta hark ikasitakoak niri. Hemezortzi bat urte nituela, Sakabi eta Elgeta Marediagan jotzen ari ziren batean soinua hondatu zitzaizela eta niri deitu zidan Madariaga Txikiak, eta nire soinua eraman nien, bi orduko bidea egin ondoren.

**Zeln harreman izan zenuen Elgetarekin?**

Soldaduskari Orioko Arando baserriko soinu-jotzaile batekin tokatu zitzaidan eta hark gomen datu zidan maisu bezala Elgeta hartu behar nuela. Asteartetan Azpeitiko azokan egin ohi zuten zita, astea ikaslearen etxean pasatu eta berriro larunbatean alde egin ohi zuten boda eta festaren batera. Egunean bi edo hiru ekitaldi egiten genituen. Aste bakan batzuetan izan zen gurean, baina asko ikasi nuen berarekin. Harrigarria zen soinua jotzen eta gerroztik asko ibili ginen elkarrekin. Hil aurretik neuk ikusi nuen azken aldiz beharbada Elgeta

*Aizpurutzoko erromerian, esaterako, errepidean egiten zuten jendeak dantza, eta guk Bergarako partean jotzen genuen, herri horretan dantza lotua debekatu gabe zegoelako.*

Donostian. Berarekin ikasitako trikitilariak jaialdiak egin zituzten bere alde dirua biltzeko eta neu joan nintzaion Bar Baserri- ra, han egoten baitzen jotzen. Aspaldian ez zela etortzen esan zidaten eta Boulebardeko arku- petan aurkitu nuen, zarpaillu samartua. Elkarrekin bazkaldu, dirua eta bi kaxa puru eman nizkion.

**Zein izan da zuk plazarik gehien egin duzun garaia?**

Soldaduskatik etorri eta Azkoiti-ko Forjasen hasi nintzen lanean, baina ez zidaten kanpora joateko baimenik ematen eta soinuak asko erakartzen zidanez, lana utzi eta hamalau urte egin nituen batera eta bestera soinuarekin, jaiotetxean pinu landarearekin ere lan egin ez, ezkondu nintzen arte. Bodaren bat ia astero izaten nuen eta bestela ere asko ibili nintzen bolada horretan, baka-

rrik gehienetan eta lagunen batekin ere bai. Sakabi izan zen horretan gehien animatu nindueña, berak han-hemenka plazak eskaintzen baitzizkidan. Elkarrekin ere asko jotakoak gara.

**Estimazio handia al zuen trikitirik sasoi hartan?**

Ni inguruko erromerietan hasi nintzen, Aizpurutzon eta Elosuan. Aizpurutzon jendeak errepidean betetzen zuten, orduan ez baitzegoen auririk bat ere. Ez eta motorik ere. Bizikletan joaten zuten jendea Azpeitia edo Zumarraga aldeetik eta inguruetatik oinez. Herri horrek hiru muga ditu eta guk Bergarako partean jotzen genuen, herri horretan dantza lotua debekatu gabe zegoelako. Nik 24 bat urte nituen hasi nintzean. Baziren erromeria leku batzuk jendeak bi korro-riban dantza egiten zuena, alde batean musika taldearekin eta

bestean trikitiarekin, eta askotan jende gehiago biltzen zuten trikitixak. Saioa bukatzerako hautsez estalita egoten ginen, halakoxea baitzen jendeak dantzaz egiteko orduan zuten gogoia. Poliki-poliki Gipuzkoa gutxira iristen hasi nintzen. Baserrietan egiten ziren bodetan ere jotzen genuen. Behin «arreo-zabaltze» eta guzti egindako boda batean parte hartu nuen. Neskaren baserri-rik gurdian arreo hartu eta mutilaren baserri- ra joan ginen. Gurdiak ere txistua ateratzen zuten eta etxaferoak botatz eta ni trikitixa joaz egin genuen bidea.

**Zenbat eguneko bisitak egiten zenuen festa lekuetara?**

Aiako Altzolan, esate baterako, zortzi eguneko egonaldia egin nuen behin. Zazpi eguneko izan behar zuten, baina azken eguna iritsi zelarik, neskek eta mutilak hasi ziren festei amaiera nork emango eztabaidan eta egun batzuek luzatzea erabaki zuten.

**Pande-jotzailearekin edo gabe ibiltzen zinen?**

Donostiako Aste Nagusitik edo deitzen zigutelarik, pandero-jotzailearekin joaten ginen, baina osterantzean bakarrik ibili ohi ginen. Nik izan ditut pandero-jotzaile batzuk, baina alaba hasi zere bakarrik gehiago ibiltzen nintzen. Azken hogeita bi urteotan bera izan da nire pande-

ro-jotzailea.

**Asko hitz egin da zure alabaren panderoa jotzeko moduz? Lehendik datorren estiloa da «hanka eta buru» jotzeko modu hori. Arruabarrenak jotzen zuten horrela eta Landakandak ere bai. Alabak sekulako arrakasta lortu du jotzeko modu horrekin. Garraioetxea lehendakari zela gutun bat ere idatzi zion.**

**Aurki disko berri bat ateratzekotan omen zarete.**

Mari Karmenek (lagunek Mamen diotzen diote alabari) 11 urte zituela atera genuen lehena eta orain lau urte etorri zen bigarrena, "Eman neri eskua". Hirugarrena grabatuta daukagu Elkarrekin, baina oraindik ez diogu izenik jarri.

**77 urte betetzeko zorlan eta diskoa berria eta omenaldia.**

Ez da lehen omenaldia. Martiritan egin zidaten lehena, Agineta auzoan bigarrena, Elosuan hirugarrena eta Trikitilari Elkarteak anaia gazteari eta bioi egin zigun laugarrena. Hau bosgarrena da, beraz.

**Segitzen al duzu jotzen?**

Gutxi edo asko egunero egiten dut saioak bat hementxe, etxeko sukaldean. •



ANDONI LAVELLAN